

Urrutiko historia gurea egiten...



OROIMEN HISTORIKOAREN LANKETA IKASGELAN

Sekuentzia didaktikoa eta inplementazio gida



Aurkibidea

SARRERA	3-4
LANDUKO DIREN KONPETENTZIAK	5-6
ZER IKASIKO DUTE IKASLEEK?	7-8
ZEINTZUK DIRA SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN HELBURUAK?	9-10
SEKUENTZIAREN EREDUA	11-13

Sarrera

Gizarte sistema etengabeko aldaketa prozesu batean bizi da. Eta horrekin batera, gizakiaren sozializazio modu eta inguruak ere aldatzen joan dira. Horren baitan, bizi garen testuinguruan, irakaste-ikaste prozesuak nahitaezko birpentsatze edo hausnartze prozesuak behar izan ditu, gizarte aldatzen doan heinean ikasketa metodologiak ere bai bertara moldatu behar izan baitira.

Bizitzeko modu berriek, zientziaren laguntzarekin izan ditugun lorpen guztiek, kultur aniztasunaren kolektiboek eta gutxiengoa diren mugimenduek, Euskal gizarteko eta Europa mendebaldeko hezkuntza sistemak birplanteatzera bultzatu ditu. Beste modu batera esanda, gizarte modeloak aldatu ahala hezkuntza berreraikitzen joan da. Gizarte eragileek zuzenki eragin dute hezkuntza prozesuan, beraz, ezinbestekoa izan da historian zehar hezkuntzak eman behar izan dituen aldaketak.

Gizarte testuinguruaren baitan, aldatzen doan hezkuntza sistemak, gizarte egoera berrietan, hezkuntzaren bizi-egitura bera birplanteatzen dituen marko berriak sortzen ditu. Eta horretarako, funtsezkoa iruditzen zaigu, ikasketa prozesu batean gizarte zientziak eta historiak duen zeregina. Historia eta Gizarte Zientzien lanketak, bizi garen gizarte sistemaren hausnartze eta gogoeta sakonetara bideratzen du ikasleria, hau da, ikaslea bizi den gizarte behatzera, ulertzera eta aurre egitera bultzatzen du.



Oroimen historikoaren lanketa proiektua ikasleen ikasketa prozesuaren garapenean zentratzen da, metodologia parte-hartzaile aktibo batean oinarriturik. Hoberen islatzeko modua, helburu konpetenteak eta multidiziplinarrak bermatu eta lantzea da.

Proiektu hau, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan Gizarte Zientziak eta Historia arloetan lantzea du helburu. Euskal Herriko historia eta oroimen historikoa oinarri harturik, garai historiko ezberdinetan oinarritu daitezke saioen lanketak, ikastetxe bakoitzaren curriculum eskolarrera egokituz.

Lanketarako garai historiko eta gaiak anitzak izanik, sakonean bereziki landuko den historia XX. mendeko historia, hau da, garai eta gai historiko bakoitzean eskualdeko herrien bizimodua eta historia landuko da. Herri bakoitza eta eskualdea eskusiboki landuz garai historikoen arteko ezberdintasun eta ezaugarri nagusienak aztertuz, gizarte edo historia saioetan ohiko ez diren molde eta erreminta ezberdinak erabiliz landuko duen proposamen didaktiko bat da honako lan hau.

Eskualde eta herri bakoitzean item zehatzak ezarriko dira eta horiek ardatz izanda eta orain arteko historia kontuan izanda, diskurtso integral, pedagogiko eta historiko bat eraikiko da. Herri bakoitzaren nahiaren arabera, era berean, herriko ondare historiko eta kulturalaren bultzatzaile eta babeslea izango da.

Herritar asko elkarlanean eta auzolanean izugarrizko lana egin dute isiltasunean mantendu nahi izan diren pasarteak azaleratzen. Memoria historikoaren lanketak euskal gizartearen garai batean sendatu gabe utzi ziren zauri edo egoerak sendatzen eta sendotzen lagunduko du. Historiak, herriko aztarnak identifikatzen eta herritarren oroimen historikoa jasotzen eta hausnartzen bermatuko du.

Oinarrizko konpetentziak lortzeko, bitarteko metodologikoekin, denbora tarte batean irakaskuntza eta ikaskuntza prozesu bat ematea beharrezkoa dela deritzogu. Hori horrela izanik, lanketa didaktiko honekin bermatu nahi diren oinarrizko konpetentzia edo helburu multidisziplinarrak integratuz, ikasturtean zehar Gizarte Zientzietan edo Historian landu diren beste konpetentziekin bat egitea du helburu. Eta horrez gain, proiektu honen jomuga ikasturtean landutako gaien osotasuna landu eta borobilduko duen lanketa integral, hezitzaile, metodologiko eta didaktikoa izatea da.

Landuko diren konpetentziak

Proiektu honen helburu nagusia ahozko historia landuz eta memoria historikoa analizatuz ikasleen oinarritzko konpetentziak garatzea da. Proiektuaren balio erantsiak honako hauek dira:

- Oinarritzko hezkuntza konpetentzien garapena, batez ere pentsamendu kritikoa eta analitikoa, ikasleen autonomia eta taldean lan egiteko gaitasunak.
- Iraganak gure egungo gizartean nola eragin duen hobeto ezagutzea eta hiritartasunaren kontzientzia hartzea.
- Ikasleak informazio iturrien lanketan trebatzea, beraientzat motibagarria izan daitekeen metodologia bat landuz.
- kaste-prozesua lehenesten duen metodologia aktiboa garatzea.
- Ikasleek ulertzea historiaren kontakizuna ez dela bat eta bakarra. Aitzitik, konta kizun anitzez eta konplexuez osatuta daudela iraganaren interpretazioak.
- Ikasgelan ahozko lekukotasunekin lan egiteko aukera eskaintzea.
- Belaunaldi ezberdinetako komunitate bateko kideen arteko komunikazioa indartzea eta eskola komunitatearen parte hartzea sustatzea.
- Historiaren eta gizarte-zientzien ikuspuntu globalizatzailea eta integratzailea garatzea.
- Museoetara edota memoria-lekuetara irtenaldiak egitea, ikasleek haien ingurunea hobeto ezagutu dezaten.

Proiektu honek eskaintzen dituen saioak ikastetxeko DBH 4. Mailako ikasgela bakoitzeko 5 saio izango dira:

- 1. saioa:** memoria eta historia kontzeptuen eta haien arteko desberdintasunen analisia.
- 2. saioa:** aztertutako gertakari historikoak bizi izan zituzten gizabanakoak elkarri- zketzea.
- 3. saioa:** aurrez egindako elkarriketak analizatzea, testuinguru historikoa, gertakarien kausak eta orainaldiko ondorioak eta gertakariak eta iritziak erla- zioan jarritz.
- 4. saioa:** pentsamendu kritikotik abiatuta, aztertutako memoriak eta informazio historikoa erlazioztatzen dituen sormenezko lan bat burutzea.
- 5. saioa:** beste ikastetxe batzuetan landu diren esperientziak ezagutzea eta ikastetxe hauekin sormenezko lanak, jasotako materialak eta esperientzia pertsonalak partekatzea.



Zer ikasiko eta egingo dute ikasleek?

Sekuentzi didaktikoak honako edukiak lantzen ditu:

Eduki-kontzeptualak

- Gertakari edo garai historiko jakin baten inguruko informazio historikoa ulertzea.
- Memoriaren kontzeptua, bere transmisioa eta eraikuntza ulertzea.
- Gertakari edo prozesu historiko baten historiaren eta memoria historikoaren arteko ezberdintasunak analizatzea.
- Ikerketa historikoa bat aurrera eramateko iturri ezberdinak ezagutzea. Adibidez, museoetako elementuak edo jatorrizko agiriak.
- Oinarrizko elkarrizketa teknikak ezagutzea.
- Bizirik dauden lekukoak elkarrizketatzea eta hauek ahalbidetutako ebidentzia historikoak jaso ondoren analizatzea.
- Memoria indibidualak eta kolektiboak egungo mundua ulertzeko izan dezaken ekarpenaz jabetzea.

Zer ikasiko eta egingo dute ikasleek?

Prozedurazko edukiak

- Zuzeneko lekukoak edo memoriaren bigarren mailako transmisoreak elkarriketatzea.
- Burutu behar duten ikerketarako behar dituzten elkarriketak grabatzeko teknologia multimedia erabiltzea.
- Aukeratutako gaiarekin erlazioa duten teoria nagusiak identifikatzea.
- Ikasleek ikertuko duten garaia inguruko memoria historikoa nola sortu eta eraiki den identifikatzea.
- Sormenezko lan bat egitea informazio historiko eta memoria ikuspuntu kritiko baten bidez aztertuz.
- Sormenezko lanak eta esperientzia herriarekin partekatzea.

Jarrerazko edukiak

- Ikasleek haien hiriaren edo eskualdearen iraganaz jabetzea eta Europa mailako beste gertakari batzuekin alderatzea.
- Jatorri ezberdineko pertsonekin harremanetan jartzeko gaitasuna garatzea.
- Taldean lan egiteko, ikuspegi kritikoa eta erabakiak hartzeko konpetentziak garatzea.
- Ikasleak haien ikaste prozesuaren dinamizatzailerak direla jabetzea.
- Belaunaldi ezberdinetako kideen arteko komunikazioa eta enpatia bultzatzea.
- Hiritartasun aktiboaren eta komunitatearen parte izatearen sentimendua garatzea.

Zeintzuk dira sekuentzia didaktikoaren helburuak?

Oinarrizko Konpetentziak (OK)

- OK1: Konpetentzia sozialak eta hiritartasunekoak: ikasleak bere herri edo hirian, herrialdean, Europan eta munduan gertatzen denaren inguruko ezagutza izatea.
- OK2: Ikasten ikasi: ikaslea norberaren ikaskuntza-prozesuaren eraikitzaile izatea.
- OK3: Ama-hizkuntzaren komunikazioa / atzerriko hizkuntzan komunikazioa.
- OK4: Konpetentzia digitala: IKT-en erabileran konpetente izatea.
- OK5: Kontzientzia kulturala garatzea.

Konpetentzia Espezifikoak (KE)

- KE1: Gizarte- eta historia-informazio iturriak bilatzean eta erregistratzean pentsamendu kritikoa garatzea.
- KE2: Jasotako informazioaren lanketan pentsamendu analitikoa garatzea.
- KE3: Gizarte-aldaketa historiko baten prozesua ikertzerakoan sormenezko pentsaera garatzea.
- KE4: Taldeko lana planifikatzen eta haren jarraipena egiten trebatzea.
- KE5: Ikaslea bere ikaskuntza autonomoan trebatzea.
- KE6: Ikasleek erabakiak hartzeko konpetentzia garatzea.
- KE7: Ikerketa proiekturako burutu beharreko elkarrizketak grabatzeko teknologia digitala erabiltzea.

Zeintzuk dira sekuentzia didaktikoaren helburuak?

Ikaste-emaitzak (IE)

- IE1:Irakasleak proposatutako iturri historikoen eta sozialen (jatorrizkoak eta bigarren mailako iturri bibliografikoak); estatistikoen (ekonomikoak eta demografikoak) eta IKT baliabideen artean, banaka zein taldean, burutu behar dituzten lanetarako egokiak diren informazioak bilatzea eta erregistratzea
- IE2:Aktore sozialak elkarriketatzea eta informazio hori iturri dokumentalekin modu kritiko eta kontrastatua lantzea; gertaerak eta iritziak bereiziz eta informazio kontrajarriak eta osagarriak testuinguru historikoan eta sozialean analizatuz
- IE3:Memoria historiko eta historiaren arteko desberdintasunak aztertzea, eragile ezberdinen arteko harremana eta kausalitate anitza kontutan hartuz, prozesu historikoaren alderdi desberdinak aztertuz, taldeko lan baten bitartez
- IE4:Taldean burutu beharreko ikerketa-lana planifikatzea, lanen banaketa egitea, lanaren jarraipena egitea eta ebaluazioa burutzea
- IE5:Taldean egindako lana partekatzea, ikerketa IKT-en bitartez atzerriko ikasleei azalduz
- IE6:Jasotako informazioan (lekukotasunak, bibliografia, argazkiak...) oinarritzen den sormenezko lan bat egitea (narrazio digitalak, aurkezpenak...).

Sekuentzia eredua

Atalak oroimenaren eta historiaren lanketaren araberakoak dira; XX. mendea eta tokian tokiko historia; Ondorioak eta errepresioa eta; Sorkuntza eta oroimen historikoa.

1. ATALA: XX. mendea eta tokian tokiko historia

	jarduera	azalpena	iraupena
1. saioa	XX. mendeko testuinguru historikoa landu.	XX. mendea barneratzeko saioa: XX. mendeko erreferentzi orokorrak eta testuinguru historikoa azalduko da. Gipuzkoako historia zentratuz Donostiako historia landuko da.	Ordu bat
2. saioa	II. Errepublika eta gerra zibilaren lanketa. Donostiako testuinguru sozial, ekonomiko eta politikoak	Euskal Herriko eta tokian tokiko ondarea landuko da saio honetan. Euskal Herriko II. Errepublika eta gerra garaia landuko da. Donostiako historia oinarri hartuta, Errepublika garaiko eta gerra garaiko gertakizunak eta oroimen lekuak aztertuko dira. Garai hauetan zeuden pertsonai, abesti eta ikur famatuak ere landuko dira.	Ordu bat

2. ATALA: Ondorioak eta errepresioa

	jarduera	azalpena	iraupena
3. saioa	Espainiako Gerra Zibilak Estatu mailan eta Euskal Herrian izan zituen ondorioak. Donostiako egoera gerraostean eta errepresioa.	Gerra Zibilan Estatu mailan izan zituen ondorio ekonomiko eta politikoak aztertuko dira. Gerrak euskal gizartean izan zituen ondorioak analizatu eta landu (bonbardaketak, erbesteak, haur errefuxiatuak, konfiskazioak...). Donostian egon ziren ondorio sozio-politikoak landu eta Gipuzkoako hiriburuak jasan zuen errepresioaren errealitatea ezagutu.	Ordu bat



3. ATALA: Sorkuntza eta oroimen historikoa

	jarduera	azalpena	iraupena
4. saioa	Ikus-entzunezko sormen proiektuaren lanketa.	XX. mendeko historiaren analisisa eta lanketa egin ostean, ikus-entzunezko sormen proiektua mantxan jartzeko eta azken saioa prestatzeko lanketa.	Ordu bat
5. saioa	II. Errepublika garaia edota gerra garaia bizi izan zuen herritar batekin azken saioa.	Oroimen historikoaren lanketari amaiera egoki bat emateko herritar bat gonbidatuko da ikasle eta gonbidatuaren artean elkarrizketa saio bat gauzatzeko. Ikasleek lehendik saioa eta galderak prestatuko dituzte gonbidatuari egiteko eta oroimena lantzeko.	Ordu bat



Harremanetarako

Eneko Sanz eta Olatz Retegi

esanz@aranzadi.eus / oretegi@aranzadi.eus

Aranzadi Zientzia Elkartea

Zorroagaina 11, 20014 Donostia

Tel: +34 943 466142

www.aranzadi.eus